


# Zigor Kode elebiduna: zertarako?\*

(What do we want a bilingual Penal Code for?)

LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena

Zuzenbide Penaleko irakasle titularra  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Sarriena, z/g  
48940 Leioa  
ldplagoj@lg.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2002), 9; 101-102]



**Z**igor Kodearen bertso elebiduna aurkeztu berri denez, iritzi-artikulu labur honetan egileetariko bat lanaren helburu nagusiak eta zergatia argitzen ahalegintzen da. Zigor Kodea itzuli izana, azken buruan, arlo juridikopenalaren altxor terminologiko zein diskurtsoaren beraren oinarriak jartzera zuzentzen da, etorkizunean jarduera juridikoaren zati hau euskalduna izan dadila ahalbidertzeko. Zigor Kode elebiduna, orduan, hasierako harria besterik ez da, zorionez erakunde ezberdinen arteko elkarlanaren bermez jarritakoa.

**H**abiéndose presentado recientemente la versión bilingüe del Código Penal, uno de sus autores expone en este artículo las causas y objetivos que han llevado a su elaboración. La traducción del Código Penal trata de establecer las bases de la extensa terminología del discurso jurídico-penal para fomentar su ulterior desarrollo en euskera. El Código Penal bilingüe es, por tanto, la primera piedra que se ha colocado gracias a la colaboración de diversas instituciones.

**Z**a version bilingue du Code Pénal ayant été présentée récemment, l'un de ses auteurs expose, dans cet article, les causes et les objectifs qui ont suscité son élaboration. La traduction du Code Pénal tente d'établir les bases de la vaste terminologie du discours juridico-pénal pour fomentier son ultérieur développement en euskera. Le Code Pénal bilingue est, par conséquent, la première pierre qui a été posée grâce à la collaboration de diverses institutions.

\*. Honako lan hau *Administrazioa Euskaraz* aldizkariko 34. zenbakian argitaratu zen, "Zigor Kodea eta zuzenbide penala" izenburupean, 19. or.

Zuzenbide Penalarentzat atera berri den Zigor Kodearen bertsio elebidunaren balioa zein den galdetuz gero, Zuzenbidearen –eta batez ere– zigor alor horren inguruko berezitasun batzuk kontuan hartu beharko lirateke<sup>1</sup>. Lehenik eta behin, jakina da Zuzenbide mundua aldakorra dela, beti legeen aldaketaren menpe. Alorrez alor, ez da erraza izaten, ezta legeen munduan dihardugunontzat ere, ia egunero gertatzen diren aldaketak jarraitzea. Gainera, dinamika hori betidanik Zuzenbide munduarekin lotuta egon bada ere, gaur egungo gizarte posmoderno eta posindustrializatuan badirudi areagotzen ari dela. Eta horrek ondorio zuzeneko dakar askotan, alegia, dagoeneko duela hainbat urte *KIRCHMANN* legegariak esan zuen moduan, “Legegilearen hiru hitz eta biblioteka oso-osoak botatzekoak izango dira”.

Lege ugarik eta horien aldaketek osatzen duten *Mare magnum* honen aurrean, zertara dator Zigor Kodearen euskarazko bertsioa? Zigor Kodea, Zuzenbide Penaleko legerik garrantzitsuen bada ere, legea den neurrian aldaketan menpe egonik, zergatik horren itzulpenari ekin? Ez ote zatekeen zentzuzkoagoa izan testu-liburu, hiztegi berezitu edo antzeko lan bati lehentasuna ematea? Erantzuna ezberdina izango da pertsegitzen diren helburuen arabera. Gure helburua zen –eta da– zientzia penala euskaraz bereganatu nahi dutenentzat edo zigor alorrean euskaraz aritzen direnentzat lehenengo oinarriak jartzen ahalegintzea: esparru juridiko-penala, alegia, sistematikoki euskalduntzen laguntzea, horretarako ezinbestekotzat jotzen dugun idatzizko altzor terminologikoa finkatzen hastearen bitartez.

Erronka honen aurrean, Zigor Kodea ez da edozein lege, eta horregatik hain zuzen ere itzultzea merezi du. Ez da edozein lege, beste alor juridikorekin alderatuta, esparru juridiko-penalaren arautegi garrantzitsuena biltzen duelako. Hortaz, Kodea itzultzearekin batera, bai delituaren definizio orokorarekin (Zati orokorra deitutakoa) bai delitu mota desberdinen definizioarekin (Zati Berezia izenekoa) zerikusi duen terminologia gehiena ematen da.

Ez dezagun ahaztu terminologiarik gabe Zuzenbidea ez dela posible. Hizkuntza da Zuzenbidearentzat lan egiteko tresna nagusia eta hitzen bitartez gizaki eta gizarte fenomenoen balorazio taxuzkoei bidea zabaltzen zaie. Gainera, zigorraz, batez ere espetxeaz, ari bagara, hizkuntzaren zehaztasuna askatasunen defentsarekin lotu beharra dago, Zuzenbide Penalak bete beharko lukeen funtzioetariko bat “justizia” egitea baita, hiritar oren errugabetasun presuntzioa ahalik eta hoberen bermatuz, Estatuak pilatu duen botere ikaragarriaren aurrean.

Lau urteko lana eta gero, zoritxarrez gutxitan gertatzen den elkarlanaren fruitua dugun Zigor Kode honetara bildu dira orain arte Euskal Herriko zenbait Unibertsitate zein Administrazioaren ahaleginak eta eskarmentua. Askotan gure gizarteak erakunde publikoei eta, bereziki, Unibertsitateari, “emaitzak” eskatzen dizkie, gizartetik urrunegi daudelakoan. Baina lana ezin da arinetan egin. Ikuspuntu honetatik aurkezten den lana orain arte egindako ahaleginaren lehenengo emaitza –xumea– bezala ulertu behar da. Eta lehenengo denez gero, are zuhurrago jokatu nahi izan dugu oraindik zabalik dauden hainbat eta hainbat hizkuntza zein Zuzenbide arazotan aukeratu, apustua egin behar izan dugulako. Hemendik ere ulertu beharra dago Zigor Kodea, eta ez beste lanik, itzultzearena, zeren eta horrek aukera ematen baitigu lana etengabe hobetu eta eguneratzeko. Horretarako, ordea, hizkuntza zein Zuzenbide munduan daudenen guztien laguntza eta parte hartzea ezinbestekoa izango da. Jo dezagun, bada, kaleratzen den Zigor Kodea aztergai, egoiak diren alderdiak sustatzeko baina baita ere baztertzekoak diren aukeraketa desegokiak bideratzeko. Hori ez da posible izango denon aldetik fede onez lan hau irakurri baina erabiltzen ez badugu. Zigor kode honen bertsioa aurkezten dugunok konpromiso hori gurea egiten, beste edozeini eskua luzatzen diogu indarrak meta ditzagun. Izan ere, gure herria txikia izanik eta aurretik erronka eta arazo handiak edukita, erantzukizunak hori eskatzen duelako.

1. Ik. zabalago, LANDA GOROSTIZA, J.M. “Unibertsitatearen zeregina legegintza euskalduneari: zuzenbide penaletik egindako hausnarketa”, In: *ELERIA* 8, 2001; 93-98 orr.

LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena. Zigor Kode elebiduna: zertarako? *Eleria*. 9, 2002, 101-102

